

1- 2 Aspektua : aditz nausiak lau aspektu har dezake.

JIN, HAR, IKUS	aspektu gabea
JIN, HARTÜ, IKUSI	aspektu bürütüa
JITEN, HARTZEN, IKUSTEN	aspektu bürütügabea
JINEN, HARTÜ-KO/-REN, IKUSI-KO/-REN	aspektu gerokoa

IKUS (*asp. gab.*) Ahalezko, aginterako, subjuntiboko lagüntzaleeki erabilten da :

Adb. : *Ikus daiteke (ahalezkoa)*

Ikus ezak (agintera)

Nahi diat ikus dezaan. (subjuntiboa, 2.perts. Hik)

Nola ikus ? Zer pentsa ?

Salbüespenak :

Aditza beste hitz mota batetarik horra delarik :

Gizon	-> gizontü	-> gizont bedi (<i>Xib. üsüenik</i>)
Hur	-> hurtü	-> hurt dadin (" ")
Xuri	-> xuritü	-> xurit daiteke (" ")
Zorrotz	-> zorroztü	-> zorrozt(ü) daiteke : (<i>zorrozten ahal da</i>)

"T" aditzoinaren ürrentzean :

- Aditz eratorrieki (*erajineki*) :

Adb. : *laket, ausart*

- Literatüra ohidüran direlakoz :

Adb. : *lot, ezagüt, ohit, ohart...*

"IKUSI" (*aspektu bürütüa*), aditz partizipioa, egintza ürrentüa, aditzen izentatzeko hiztegiatan erabilirik da.

- Ürrentze desbardinak üken detzake :

Adb. : *heltü, ikusi, erran, iratzi... (ik. ondoko taula)*

"IKUSTEN" (*aspektu ez bürütüa, / ez ürrentüa*)

Aditzoinari "-T(Z)EN" lotzen zaio ürrentürik ez den egintzarentako.